

KONTROL MOZIOA

UDAKO BIZIKLETEN APARKALEKUEI BURUZKOA

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko irailaren 16ean Gune Publikoetako Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Bizikletentzako aparkaleku faltaren arazoari dagokionez, esan dezakegu urtero errepikatzen den arazo baten aurrean gaudela. Bizikletaren erabilera Donostian gora doan bitartean, batez ere uda partean, Udalak azken hiru urteetan (2017, 2018 eta 2019) udako behin-behineko aparkaleku kopuru bera aurreikusi du: 180 plaza.

Bizikletaren Behatokiaren arabera, 2018an 21.283 desplazamendu egon dira egunean, 2017an baino 500 gehiago.

Baina, leku falta dela eta, jendea haren bizikleta aparkalekuetatik kanpo jartzera behartuta ikusten da. Eta, bitartekoetan gehiago inbertitu beharrean, Udal Gobernuak neurri hertsatzaileak hartzeko joera du. Izan ere, iazko udan 234 isun jarri zituen Udalak. Aurtengo uztailaren 18an ere, udaltzainek hainbat bizikleta eraman eta isunak jarri zituen.

Aldaketa klimatikoa, Berotegi Efektuzko Gasen isuri masibo baten ondorioz gertatzen ari da, eta isuri horien arrazoi nagusia, bakarra ez bada ere, gure metabolismo sozioekonomikoa mantentzeko erretzen ditugun baliabide fosilen erabilpenean datza. Aldaketa klimatikoa, beraz, guk eragiten dugu nagusiki, eta dagoeneko ondorioak atzematen hasiak gara.

Hori dela eta, karbono isurietan neutroa izango den Donostia baterantz begira jarri beharrean gaude, eta horretarako ezinbestekoa da eraldaketa azkar eta eraginkorrak egitea. Klima-aldaketari hurbiletik erreparatzen badiogu, eguneroko jarduera askok eragin zuzena dutela ikusiko dugu, hala nola autoz ibiltzeak.

Hain zuzen ere, Donostian berotegi-efektuko gasen emisioen banaketari erreparatzen badiogu, 2017ko Berotegi Efektuko Gasen Udal Inbentarioak emandako azken datuen

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

arabera, gasen % 56, 5 garraioak eragina da, eta kopuru horretatik, % 63 auto partikularrek sortzen dute.

Dagoeneko Donostiako Udalbatzarrak berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko konpromisoa hartu du larrialdi klimatikoaren egoera deklaraturik. Herritarroei bizikleta gehiago erabiltzea eskatzen zaigu, baina errealitatea da, alde batetik, hartzen diren neurriak autoentzat bideratuak daudela eta, bestetik, gure hirian bizikleta aparkatzea gero eta zailagoa dela, batez ere uda garaian hainbeste jendek bizikleta erabiltzen duenean Donostian mugitzeko.

2019ko irailaren 16an Gune Publikoetako Batzordean Mugikortasuneko eta Garraioko delegatuak emandako azalpenen arabera, Zurriola eta Hondarretako hondartzetan egun jartzen den bizikleten aparkalekuarekin nahikoa da, eta arazoa Kontxako hondartzan dago gehien bat. Gainera, zinegotzi ordezkariak batzordean aipatu zuen zailtasunak daudela aparkaleku berriak kokatzeko.

EH Bilduren ustetan hirian badaude leku aproposak bizikleta aparkaleku gehiago ezartzeko eta horiek sustatu beharko liriateke, bertan inbertituz, non eta benetan mugikortasun iraunkor bat ezarri nahi badugu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari azkeneko hiru urtetan mantendu duen udako bizikleten aparkaleku kopurua (180) handitu dezala.
- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Zurriola, Hondarreta eta Kontxako hondartzetan gain, hiriko beste gune batzuetan udako aparkalekuak jar ditzala.
- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Donostiako hirian bizikletentzako aparkalekuak jartzeko gune berriak aztertzeke plan bat egin dezala (lurgainean eta lurrazpian), gaian adituak diren norbanakoekin eta eragileekin.

Donostian, 2019ko urriaren 18an



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia